Argi dago noski, 1987an Udalari PROCISAk egindako eskaintzaz geroztikako harremenetan azaltzen denez, zinemaren errentagarritasuna oso txarra zela eta lehenbailehen zama hori kendu nahian zebilela. Egoera txar hori konpondu ordez, luzapenak ere sortu egin ziren. Alde batetik agintealdi-aldaketa suertatu zen Udalean eta bestetik berriz diru-eta aurrekontuarazoak; azkenik, harremanen arloko eztabaidak.

1988an, negoziaketen jarraipenean, aldatu egin zen jabearen lehenengo eskaintza eta saldu ordez ondorengo baldintzetara iritsi ziren:

1) PROSISAk Udalari doan emango ziola zinema-orubearen zati handi bat (660 m2 inguru).

2) Berak beretzat gordetako aurre aldeko zatian, Bideluze plazarantz fatxada zuenean, (220 m2 inguru), merkatal aretoak egingo zituela.

3) Lehenengo puntuan PROCISAk Udalari ematekoaren truke, merkatal aretoak egiteko lizentzia eman ziezaiola.

Aldaketa honekin eztabaida ugari sortu zen Udaleko talde politikoen artean. Batzuentzat zinemaren orube osoa beharrezkoa zen bitartean, beste batzuentzat nahikoa zen gutxiagorekin ere. Nolanahi ere, jabeak ez zuen dena saldu nahi eta Foru Aldundian laguntzak lortzeko egindako gestioetan, 500 jarleku inguruko zinema egiteko behar adina lurzozu bazela ikusi ondoren, erabaki hau onetsi zen: Etxebizitzen orube % 45,18 izatea (lehen bezala), PROCISArena beste % 12,87 izatea eta Udalarena gainerako % 45,18a.

Hitzarmena lortzearekin bi aukera sortu ziren:

1) Birmoldaketa partziala egitea eta PROCISAri bere eraikuntza egiteko lizentzia ematea.

2) Birmoldaketa osoa egiteko zinema osoa botatzea.

1990eko otsailaren 15ean, Gobernu-batzordeak, gaia behar adina eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen: Lehengo Usurbe zinea bota eta birmoldaketa osoa eginez eraikuntza berria egitea.

Erabakia hartu ondoren, lehengo eraikina erauzteko behar ziren pausoak ematen hasi ziren. Zinemako langileen bi etxebiritzako eraikinaren eta Kale Nagusiko 2. zenbakiko bizilagunen etxearen arlokoak hain zuzen ere. Aldi berean, ordurarteko Usurbe zinea itxi egin zen 1990-07-21ean. Ondoren, botatzeko proiektua egin eta berria egiteko proiektua egiteko agindua eman zen.

1990eko azaroaren 22ko Gobernu-batzordeak, onartu egin zuen usurbe zinearen botatze-lanak "Excavaciones y Desmontes EULA S.A." enpresari adjudikatzea. Botatzen hasi orduko ordea, orubearen jabekideek gerarazi egin zuten interdikto erako debekua tartejarrita.

1990-12-05ean hasi eta 1992-06-15erarte, hamaika eztabaidatan jardun ondoren, azkenean akordio batera iritsi ziren Usurbe zinea botatzeko, Udala eta PROCISA alde batetik eta etxebizitzen jabekideak bestetik.

Azkenik, 1992-09.21ean hasi eta 1992-10-07ra bitartean botatzea lortu zen.

... eta orain USURBE ANTZOKIA

Esan beharra dago, antzoki berria egiteko proiektua, Etxabarri Artkitekto J.ari enkargatu zitzaiola 1990-07-12an. Berak, bere ideiak Beeasaingo beharrizanetara egokitu zituen Foru Aldundiak jarritako baldintzen barruan, izan ere, Diputazioak 50 milioi pezetako diru-laguntza eskaintzen baitzuen.

Nabaria da atzerapen handiak eta arazo izugarriak izan zirela Usurbe zine zaharra bota eta antzoki berria eraikitzeko lanetan. Ikus ditzagun beren zergatiak:

1) Auzotarrek egindako alegazioen arabera, proiektuan aldaketa batzuk egin beahar izan ziren.

2) Usurbe Antzoki berriko obra zibila egiteko lehenengo kontratazio-lehiaketa, 116.580.168 pezetatan ezarri zen eta hala argitaratu 1991ko otsaielan. Lehiaketa hartara ordea, inork ez zuen bere bururik arukeztu eta adjudikazioa egin gabe gelditu zen.

Horren ondorioz, funtsezkoak ez izan arren, proiektuaren aldaketa garrantzitsuak hasi ziren; garrantzitsuak, bai ekipamendu aldetik eta baita diru aldetik ere. Eztabaida haietan behin eta berriz parte hartu zuten Hirigintza-batzordeak, Kultur batzordeak, Udaleko Teknikariek eta Foru Aldundiko aholkulariek, proiektua egin zuten Artkitektoekin batera. Azkenean, iritzi asko azaldu eta gai ugariz eztabaidatu ondoren, adostasunezko proiektu bat eta bere aurrekontua egitea lortu zen.

3) Bigarren kontratzio-lehiaketa, 1993ko urtarrilean argitaratu zen, proiektu berriarekin eta bere aurrekontuarekin. Aurrekontu berri, 146.863.893 pezetakoa zen.

Madrileko "Asociacion de Empresas Constructoras de Ambito nacional SEOPAN" delakoak, 1993-02-15ean lehiaketa hura inpugnatu egin zuen, lehiaketa hartako baldintza batzuk legez kanpokoak zeral argudiatuz. Beraz, baliorik gabe gelditu zen deialdia.

4) Inpugnatutako baldintzen aldaketa egin eta hirugarren aldian argitaratu zen 1993ko apirilean, Usurbe Antzokiko obra zibila egiteko kontratazio-lehiaketa eta bigarrenean argitaratutako proiektu eta aurrekontu berberekin argitaratu ere, hau da: 146.863.893 pezetakoarekin.

Oraingoan bai, oraingoan hiru lehakide aurkeztu ziren eta "Construcciones Joaquin Aramburu S.A." enpresari adjudikatu zion Udalbatzak, Osoko Bilkuran 1993ko maiatzaren 19an egindako batzarraldian. Eraikitzaile horrek enkantean azaldutako kopurua, 128.335.052 pezetakoa izan zen, beraz, azkenean, aurrekontua baino 18,5 milio merkeagoa.

Obren zuzendaritza, Joan Etxabarri eta Viky Jimeno Arkitekto jaun-andreek eta Agustin Perez de Nanclares Aparejadore J.ak izan zuten.

Azkenik, aurrez antolatuta zegoen orubean, 1993ko ekainaren lean hasi ziren eraikuntza-obrak eta baldintza-pleguaren arabera, hamabost hilabeteko epea zegoen bukatzeko, hau da, 1994-08-31rartekoa. Epe hori ez zen bete ahal izan, izan ere, uste gabeko lanak eta eranskinak sortu baitziren. Benetan bukatu zen eguna, 1994ko abenduaren 16a izan zen.

Usurbe Antzoloa, 1994ko abendiaren 23an inauguratu zen.

Kirolak Sport
Zaldizurreta, 3
☎ 88 16 66
BEASAIN
K-2
Especialista en:
• MONTAÑA
• ESCALADA
• ESQUI

FOTOETXE estudio
LABORATEGIAK BERTAN
BIDEO LANAK
ARGAZKILARIA
LABORATORIOS PROPIOS
VIDEO PROFESIONAL
FOTOGRAFO
Nafarroako Etorbidea, 23 - Telefonoa, 88 46 05
BEASAIN

BEASAIN Y EL PARTIDO NACIONALISTA VASCO

Patxi Plazaola Muguruza

Se cumplen cien años desde aquél 1895 en el que Sabino Arana dio forma al Partido Nacionalista Vasco y comenzó a extenderse desde Bizkaia a toda Euskadi. Al igual que estaba ocurriendo en Gipuzkoa durante la primera década del siglo XX, Beasain inauguró su batzoki en 1909, en torno al cual se fueron reuniendo todos aquellos con inquietudes nacionalistas. Tras un paréntesis durante la dictadura de Primo de Rivera (1923-30) en el que se cerró el batzoki y se prohibió toda manifestación nacionalista, la II República permitió un florecimiento cultural vasco y un progresivo auge del nacionalismo que se reflejó también en Beasain: se estableció el Partido Nacionalista Vasco que fue el encargado de organizar muchas actividades culturales (teatro, conferencias...), incluso se preparó la inauguración de un nuevo batzoki... todo lo cual se paralizó con el alzamiento militar de 1936 que dio paso a una Guerra Civil y a un régimen que trató de anular toda manifestación nacionalista. Habría que esperar hasta la caída de Franco en 1975 para que el nacionalismo tuviera vía libre en la vida política.

Aurten ospatzen da EAJ-PNVren 100. urtemuga eta azaletik bada ere Alderdi horrek Beasainen izan duen bilakaera azaldu nahi dugu. Horretarako Alfonso Ibaibarriaga zenak egindako adierazpenetaz baliatuko gara.

Sabino Aranak XIX. mendearen 90. hamarkadan finkatu zuen abertzaletasuna Bilbo inguruan, 1895an Bizkai Buru Batzarra eratuz, EAJ-ren sorrera data bezala hartua. Abertzaletasunaren ideiak zabaltzea, ordea, ez zen erreza izan inolaz ere. Bizkaia izanik lehenengo abertzale gunea, mende honetako lehen urteetan Gipuzkoara hedatzen joan zen, haren ispilu urte haietan sortutako batzokiak ditugularik. Horien artean Beasaingoa, 1909ko otsailaren 7an Kale Nagusiko 38. zenbakian inaguratu zena (1908ko azarotik antolaturik zegoen arren).

Primo de Riveraren diktadura garaian batzokia itxi zuten, 1923tik 1930era akti-

Gudaroste "Nazionala" Beasaingo Udalatxearen aurrean.

bitate politiko guztiak galerazi zituztelako. Beasaingo abertzaleak ixilpean ibili beharrean aurkitu ziren, Ordiziakoekin harremanak ezkutan... Baina, ez zegoen politikarenganko sentsibilitate gehiegirik "Ez zegoen ezer ere ez, futbola, futbola gora eta futbola behera, jende dena zoratuta, Francok ere horrela zeukan jendea".

Abertzaletasunaren indarra 30. hamarkadarekin etorri zen, Espainia mailan ezarritako II Errepublikarekin batera; Euskadi osoan, Estatutua lortzeko ahaleginak ematen ari ziren bitartean euskal kulturaren pizkundea eman zen. Beasainen, guzti hau Primo de Riveraren diktadura erortzearekin hasi zen. "Lehenengo bilera 1930an egin zen Kafe-Norten, hamazazpi edo hemezortzi batu ginen; batzokirik ez geneukan eta ea non jarri genezakeen... Iturrioz kalean eduki genuen batzokia". Handik sei hilabeteta-ra Uri Buru Batzarra sortu zen, EAJ-ren Beasain mailako antolakuntza finkatuz. "Bernabe Aierdi izan zen alma materra. Gazteak Mendigoizale Batzan biltzen ziren; Emakume Abertzale Batza ere bazegoen". Hasiera gogorra izan zen, ez bait zegoen hemen abertzaletasunaren inguruan ezer sistematizaturik. "Ez zegoen mamirik. Bi edo hiru baso-erdi edan, komentatu... ez zegoen borrokarik eta...".

Baina, pixkanaka, abertzaletasuna bideak urratzen joan zen. Horretan Euskadi osoan gertatzen ari zen gisan, euskal kutsuko kultur mugimenduak eduki zuen bai zer esanik. "Teatroak egiten genituen eten gabe, gehienak euskeraz; bi dantza talde zueden Beasainen, "Poxpolinak", pilota txapelketak... gerra etorri arte egiten genituen aktibitate hauek eta denak alderdiaren bidez. Guk egiten genituen aktibitateak ez zituen inork gaizki ikusten. Abertzaletasuna ondo ikusten zen, jendea batzokira etortzen zen; eta gero pixkanaka berotzen joaten ziren. Gerra etorri ez balitz... Poliki poliki denak guregan zetozen".

Errepublika garaian eginiko hauteskundeetan EAJ-k gora egin zuen eta Beasainen ere nabarmendu zen igoera hau "mejoratzen, beti mejoratzen. Lana ikaragarri egiten genuen hauteskundeetan, sei hilabete lehenago komisioak...". Igoera hau 1936ko otsailean ospatutako Espainiako parlamenturako hauteskundeetan nabarmendu zen batipat. "Guk irabazi! Lau mutikok, Fronte Popularrari!".

Espainiako Guerrate Zibilak, ordea, guzti honen etena ekarri zuen, baita batzoki berriaren inaugurazioarena ere. "Lehenengo harria 1934ko ekainak 11an jarri zen, San Bernabe egunean, Bernabe Aierdi zenek promotore...". Inaugurazioa 1936ko ekainak

Agintari militar eta zibilak San Martinen Prozesioak.

18 eta 19rako zegoen prestaturik, nahi eta aurreko sei hilabeteetan jadanik batzokia martxan egon. Baina, ez ziren prestaturiko ekintza guztiak ospatu Gerrate Zibila egun haietan bertan hasi zelako. "Don Florentzio, herriko parrokoak, lokala bedeinkatu zuen egun batzu lehenago; 18an, larunbatean, txistoso bi geneuzkan (Beorlegi eta Egileor); gero antzerkia (Tolosako "Lizardi" taldea). Ze jaialdi ederra! Gero etorri zen abisua (Madrileko egoera politiko nahastia). 19an inaugurazioa egin zen, meza, banketea, bertso batzu (Basarri genuen hemen)... baina, akto politikoriz ez (Irujo, Lauaxeta eta Agirrek hitzegin behar zuten arratsaldean). Jende triste handik atera ginenean, kalean jendea eskopetekin, argiak kenduta..."

Altxatuek segituan hartu zuten Nafarroa eta arriskua gertu ikusten zen. Beasain, komunikabide gune eta industria mailan indartsu, oso leku preziatua zen Gipuzkoa eskuratzeko eta segituan hartu zuten altxatuek (arma mailan askoz ere indartsuago zeuden...). "Alderdiak errepublikarekin joateko erabakia hartu zuen. Udaletxean errepublikarren gerra komitea zegoen osatua 18tik bertatik eta hara joan ginen laguntzera". Uztailaren 27an erori zen Beasain. "Guk alde denok. Ahal genuen tokira, mendira lehenik. Partiduak ez zuen ezer organizatu, inork ez bait zekien hura zer zenik!" Gau hartan bertan fusilatu asko izan ziren Beasainen, horien artean abertzaletasun giroan ibilitako zenbait. Inauguratu berria zen batzokia itxia eta okupatua izan zen.

Gerra ondoren ez zen ezer mogitu. "Ni mogitzen nintzen pixka bat, nahiko propaganda egiten nuen. Gudari aldizkaria jasotzen nuen Ordizian eta banatu egiten nuen. Neronek egiten nuen propaganda ingandeetan, dantza aritzen zen jendea; dozena erdi bat sartzen nituen galtzetan, eta hanka dantzatu eta lurrean geratzen ziren bat edo bi; estaziora joateko bidean ere berdin... Denuntziak ere izan genituen; niri kuartelera noiznahi deitzen zidaten deklarazioak hartzera..."

Egoera zaila, beraz. 1975an, Francoren heriotzarekin, gauzak aldatu egin ziren Euskadi osoan. Beasainen ere, beste partidu politikoetaz gain, EAJren antolakuntza mamitzen joan zen pixkanaka, horren adibide, lokala berreskuratu ondoren, 1981an inauguratu zen batzokia dugularik.

CAMIONES Y AUTOCARES

VOLVO

SERVICIO

BOSCH
TALLER
AUTORIZADO

Garage
"MODERNO"

PABLO IRIZAR, S.A.

COMERCIAL IRIZAR, S.L.

CONCESIONARIO VOLVO
GUIPUZCOA - NAVARRA

Avda. de Navarra, 14

Teléfs. 880229-888600 y 888604

BEASAIN

RECUERDOS DE MI NIÑEZ

Mª Milagros Olano

Denbora joan ahala herri batek aldaketa franko jasaten ditu bere baitan. Hona hemen, orain urte batzutako gauzak gogoratuz, aldaketa hoein berri izateko aukera. Zeinek antzeman orain, bozinaren tutu hotsa entzunda soilik, automobil hori norena ote den? Orduko gazteek, ordea, ibilgailu bakan haietako gidarien izenak ezagutzeaz gain, une ederrak pasatzen zituzte haien kontura. Dena den, gazte hoien haurtzaroko giroa, gaurkoena baino hobea ote? Ala, okerragoa? Auskalo. Garbi dagoena zera da, zeharo ezberdina izan zela.

Quiero seguir evocando aspectos de la vida de nuestro pueblo, que conocimos, disfrutamos y quisimos durante nuestra niñez. Nuestros hijos conocieron una mínima parte de ellos y nuestros nietos prácticamente ninguno.

Uno de estos aspectos era nuestra total integración con lo que pasaba a nuestro alrededor, ya fuera triste o alegre, estuviera relacionado con las personas individual o colectivamente como por ejemplo, el transporte, el comercio, etc.

Por el sonido de la bocina, conocíamos a la media docena de vehículos de motor (entre autobuses, camiones y coches) que cruzaban nuestro pueblo.

Uno de los más originales, el que más nos llamaba la atención, era el camión de la Tejería de Ormaiztegi; un camión sin cabina y con las ruedas macizas y cuyo chófer iba al volante vestido con un guardapolvos gris, visera y unas grandes gafas. No solo conocíamos al camión sino que además sabíamos el nombre del conductor al que desde la barandilla de la plaza arriba jaleábamos al grito de ¡Hala Fidel! ¡Hala Fidel!...

En la esquina de la Plaza del Pescado esperábamos al autobús que venía de Ataun, su conductor Martín Altolagirre solía llegar tocando una bocina que sonaba poco más o menos "pa pu, pa pu" y a quién cabábamos "Martín Trapu, sitio pa mi, no me llames Martín Trapu".

Otro coche muy original era el del Sr. Ilundain, con una plaza de viajeros en la trasera del coche, a la intemperie y al que llamábamos "ahí te pudras".

Ahora voy a citar alguno de los comercios que más me llamaban la atención por las cosas que veía en ellos.

Bajando de la plaza, a mano derecha (actualmente "Artane") estaba la tiendecita que para nosotros era el no va más de los comercios; la tienda de la Remedios, donde semanalmente y a la vista del público tostaban cacahuetes (todavía recuerdo el olor que se esparcía por los alrededores).

Las jaulas y pájaros de Paco el barbero.

Las máquinas de medir aceite y cortar bacalao de las "Barras Doradas".

Por Navidad, el cocodrilo de mazapán de Pastelería Iraola; yo no sé qué medidas tendría pero a mí me parecía enorme.

Las postales de parejitas con brillantitos (bris-brises, decíamos nosotras) cuentos de Calleja, muñecas de cartón y demás chucherías que veíamos en el escaparate de "Bar Glorieta" (hoy Itsas-Lur Arrandegia).

El espejo de la zapatería de Eusebio Aranburu y también una silla corrida muy bonita.

La cabeza de ciervo disecada y la caja registradora de Ferretería Esnaola.

Y ya el delirio era llegar al Frontón y empezar a leer en el segundo piso de la casa de Dionisio un letrero en el que decía primero, MARCELINA, andabas de 5 a 6 pasos y leías, ARRILLAGA, y otros 5 seis pasos y BORDADORA; todo en el mismo letrero y a letrero lleno con cada palabra (para nosotras poco menos que milagroso).

Tanto el tendido eléctrico como el telefónico iban a la vista a una altura prudencial, sujetos los cables en sendos postes. Si había alguna avería, veíamos como subía por el poste el operario que veía a

arreglarla, con un cinturón se sujetaba al poste, se calzaba en los pies una especie de hoces con dientes y... trapa, trapa, sujeto al tronco iba subiendo clavando aquellos instrumentos en el poste a medida que iba trepando, y nosotros mirándole con la boca abierta.

A principios de Otoño otro de los espectáculos que se nos brindaba en estos tendidos eléctricos (sobre todo en los cables de la esquina de la casa Juan Victor) eran las reuniones de las golondrinas, antes de emprender su marcha hacia el Sur.

Uno de los sitios en los que jugábamos mucho era en lo que nosotros llamábamos río de las piedras, en el río Oria cerca del puente del Herrero al lado de un transformador de la luz. Aquí recogíamos piedras lisas para jugar al tacos y hacer aguadillas en el río.

En el puente del Herrero solía haber gente pescando, también en la Portería donde Valentín tenía una barca.

Los chicos se bañaban en la presa de Bernedo donde decían que había nutrias.

Nuestro contacto con el medio en que vivíamos era total. Participábamos en grupo en las penas y en las alegrías.

En la plaza jugábamos, reíamos, bailábamos... En la Iglesia no había bautizo, boda o funeral en el que no tomáramos parte.

En cuanto nos enterábamos de que había muerto alguien en el pueblo, íbamos en grupo a casa del difunto y mientras unos esperábamos en el portal, la más decidida subía, llamaba a la puerta y preguntaba, ¿dejan ver?, y si la respuesta era afirmativa subíamos todos a ver al finado.

En este medio transcurrió nuestra niñez, ¿mejor...?, ¿peor...? No lo sé, pero muy distinto sí.

INDUSTRIAS ELECTROMECANICAS

G. H. S. A.

MAQUINARIA ELEVACION Y TRANSPORTE

Polipastos eléctricos, Monorraíles, Grúas, Grúas puente,
Grùas pórtico, Grúas de brazo giratorio, Montacargas industriales,
Montajes de maquinaria de elevación en general,
Carretillas elevadoras, Estanterías de almacenaje, Travelift.

APARTADO, 27
TELS. 885100 - 886550
TELEX: 36672-GH-E

EQUIPAMIENTOS
DE
PUERTOS DEPORTIVOS

BEASAIN - OLABERRIA
(Guipúzcoa)

BANCO

José Ignacio García

Bueno no voy a esperar hasta el final para desear a todos los Beasaindarras unas Felices Fiestas; y sin intención de ser sectario, en especial a todos los de la calle San Ignacio "LA SANI" por ser éste el lugar dónde estuvo ubicado el protagonista de estos recuerdos aquí relatados.

El protagonista no es otro que un pobre banco; cosa extraña, eso de pobre con el nombre de "banco" pero éste era así y digo era porque los que lo conocimos sabemos que ya no existe.

El fue para muchos en nuestra feliz y querida infancia (por lo menos, para mí) como un maestro más.

Nos sirvió de campo de fútbol, donde los Iribar paraban penaltis y los Cruif metían goles; como gran frontón; como sala de reuniones donde maquinábamos los mejores planes; como salón de juegos en el cuál las cartas nunca faltaban, donde chapas y canicas en nuestros bolsillos siempre aguardaban a iniciar nuestros desafíos; como feria de muestras donde aparecían las más diversas: espadas, arcos y flechas por nosotros construídas; como inicio de todos nuestros juegos donde empezaba la cuenta del uno al cien de nuestro divertido Txibiri..., etc.

Pero no eramos los únicos que lo usábamos. Sobre él muchas madres descansaban y charlaban las tardes soleadas. Mientras con un ojo no nos perdían de vista con el otro vigilaban el continuo movimiento de las agujas y la lana.

Esto que arriba queda plasmado, son los recuerdos de infancia de una persona, que hoy está a más de seiscientos kilómetros de dónde estaba ese magnífico banco, que ya no está más que en el recuerdo y la añoranza de tiempos pasados.

Agradecerte banco lo mucho que hiciste por mi y por muchos que contigo crecimos, y siento que no puedas seguir haciendo lo mismo con otros.

Tú te fuiste y un día tras de tí iremos nosotros hasta ese día...

¡AGUR BANCO!

Mandar un saludo especial a los personajes de la foto: Chus, Patxi y Peque, al autor de la misma que desconozco quien fue. Así como a los muchos que disfrutamos de la presencia de éste singular banco.

El "BANCO" de la calle San Ignacio.

ANTZARRA ALA BAREA?

Aitor Sarriegi
Galparsoro

0

Asfaltoaren erdian
ondoko jardin txikian
seinale bat jarri zuten
behar ez zuen tokian
ta kritikatzera noa
ustez modu egokian.

1

Lazkaotik Beasaina
norbait bada igaro
Ertzainen base parean
bada zerbait arraro
"Beasain" en seinalea
gero ta barrurago
ta norbaitek ez baleki
muga ibaian dago.

2

Lehengoa gaizki zegoen
dena esan beharko
honekin kexa gehiago
Diputaziorako
Ez dira oso azkarrak
hor jarri dutelako
eta gu tontoagoak
uzten diegulako.

3

Antzarra ala barea
pentsatu izan dut maiz
ni bare sentitu arren
oraindik nago garaiz
antzar izateak ere
ez eginagatik gaitz
hori hor den bitartean
mokodun barea naiz.

4

Okeretik txarragora
guztiontzako traba
muga ezin ote dute
bere tokian laga
hauteskundeen garaia
badatorrenez, hara!
hori botatzen duenaz
akordatuko gara.

00

Esandakoei begira
hau da azkeneko jira
seinalea aldatzera
etorri gure herrira
esan ditudan guztiak
egia hutsak baitira.

IRATXO
DANTZALEKUAK

JAIZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
BEASAINDAR GUZTIOT

ENE ETXEA

M. A. Mintegi Larraza

Mi casa es muy antigua, tal vez la mas antigua de la vecindad. Los avatares de la vida, sin embargo, han debilitado sus cimientos, casi hasta hacerla caer.

¡Cuántos sufrimientos no ha soportado! Quizá por ser humilde, la mas de la vecindad. Es verdad que en un tiempo fue mayor, pero las luchas entre vecinos, también entre sus propios moradores, frecuentes por desgracia, influyeron e influyen negativamente en ella.

Más de una vez ha sido (y es) ingrato el comportamiento de los que ha dado morada. Muchos la han despreciado (la desprecian), no pocos la han arrinconado, quién sabe si avergonzados de su pequeñez.

¡Cuantos recuerdos tras sus paredes hendidas! La última gran lucha... ¡Casi fue la definitiva! Y he ahí que sobreviviendo al que parecía el fin, poco a poco (no sin encontrar obstáculos), sus cimientos se van fortaleciendo. El futuro es prometedor, pero el trabajo inmenso. Sin embargo los ladrillos van tapando las hendiduras que el tiempo y los enemigos han dio haciendo en sus paredes.

No ha sido fácil el decidir el cómo hacerlo. No lo ha sido porque sus moradores, mientras agonizaba, no se ponían de acuerdo.

Día a día, no obstante, es mas hermosa dentro de su humildad. Hay quien pone obstáculos para que no lo sea; también quien se despreocupa por sus suerte; son muchos los que se esfuerzan en poner su granito de arena; no pocos los que se conforman en admirar el esfuerzo de éstos últimos. Para todos tiene abiertas sus puertas, para todo el que desee vivir en un barrio variopinto.

Para ti también. Ven y conoce la casa, penetra en ella. Desde el interior la verás mas hermosa. Además, una vez dentro, tu barrio será mayor, ya que a la que anteriormente tenías le has añadido otra morada. ¡No lo dudes, ven!

No, no tendrás dificultad para encontrarla, junto a ti la tienes, sus paredes son de piedra recia, igual a la de las tumbas de aquellos que la edificaron, que le dieron su nombre: EUSKARA.

* * *

Ene etxea zaharra da oso. Zaharrenetariko bat auzoan, zaharrena ez bada. Ahul dauzka oinarriak, ezinbestez, mendeetan zeahar gorabehera ugari jasan baititu. Eta ez nolanahikoak. Hala ere, aintzinako berberak dira.

Zenbat zoritxarrak ez ote ditu jasan! Etxe guztiek bezala, jakina, baina gutxik hain latzak. Eta oraindik ere... Beharbada txikia delako, apala, auzoko etxetzarren ondoan.

Handiagoa zen garai batean, askozaz handiagoa. Denboraren poderioz, hala ere, auzoko nagusiak indartuz joan neurrian, txikituz joan da.

Ez dira izan, ez, askotan lagun onak. Handinahikeriak galerazi die nonbait.

Maiz ere, dena esan behar, etxekoon portaera ez zaio lagungarri suertatu, kaskarra izan baita. Aldameneko etxeen handitasunak itsututa gutsietsi egin dugu arbasoen ondarea, lotsatu egin gara gurearen apaltasunaz. Itsu halakoak! Noiztik handiera zerikusirik handitasunarekin?

Oroitzapenez gainezka dago ene etxearen ganbara. Azken gatazka... Ene! Honetan ere etxekook nahastuta, kanpoko etsaiak gutxi ez eta. Besteetan bezala ondorio onik ez: paretak pitzatuta eta oinarriak kolokan. Lur jotzeko zorian.

Ez nuen uste zutik iraungo zuenik.

Eta horra hor, aspaldiko partez, eragozpenak nekez eta pekez gaindituak apurka-apurka indartuz doala, apaltasunari uko egin gabe handitasunaren bila. Oinarriak ahul samar eta paretak dexente eroriak dauzka oraindik, eta edukiko ditu denbora puska batean; baina ekinaren ekinean sendotuz eta edertuz doazkio.

Bat baino gehiagok, oraindik ere, nahiko lukete etxea iraganaren lekuko bilakatua ikusi, trikuarrietan ehortzita dauden arbasoen ondarea galbidean.

Hortaz, handia izango da lana, dudarik ez, osasuntsu ikusi arte. Gurean, gainera... Oinarriak sendotzeko modua erabakitzea ere ez da gau bateko lana izan, bai zera!, tirabira eta ezadostasun sorburua baizik, zereginari emanak etxerako onena nahi izanagatik. Ez da lehenengo aldia. Azkena, apika?

Izango ahal da!

Batzuek aspaldiko itxurari eutsi nahi zioten (etxe barruan gela itxiak eduki); beste batzuek, berriz, erabat berritu nahi zueten (pareta zaharrak suntsitu eta garai berriei erabat egokitu); eta, gainerakoek, aspaldikoa bazterreratu gabe eraberritu (aintzinako paretak sendotu garai berriei egokituz batera, gaur egun gertazen ari den bezala).

Luze eztabaidatu ondoren (luzeegi ene etxearen egoera kontutan hartuta), eta den-denak bat etorri ez arren, hona hemen etxekoak (denak ez, tamalez) zereginari emanak, zutabeak sendotuz eta paretak edertuz.

Kosta ahala kosta, baina itxura polita hartzen ari da.

Horregatik edo, badira kezkatuta daudenak, itsusi eta zarpail ikusi nahi baitute, batek daki hondakin bihurtuta ez. Bai, oraindik ere! Ene... Zer egin die ene etxeak, beti lagun, umil eta apal izan den auzoko etxe txikiena?

Beti auzotar zintzo izan denak, zintzoegia agian; umilegia ere. Horregatik, beharbada, saiatu dira historian zehar ene etxearekin.

Hamaika eraso jasan ditu... Eta zutik dago oraindik, sendabidean. Poliki doa, baina etengabe, etxekoei esker egunero adreilutxo berri bat duela horma zartatuetan. Ugariago izan zitekeen, etxeko asko oraindik ikusle hutsak baitira. Maite dute, antza, baina atarian geratzen dira, lanaren nekeak atzera eginak nonbait.

Eta guztion beharra du ene etxeak, guztiontzat ditu irekiak ateak, gertuko zein urrunekoei. Auzoa Babel txiki bat bihurtuta ikusi nahiko luke. Elkar ulertzeko gauza litzatekeen Babel batean, hain juxtu ere, handiak eta txikiak elkarrekin biziz.

Sar zaitez lagun, zaharka ezazu ate zaharkitua, barrutik ederrago ikusten baita etxea. Auzoa bera ere zabalagoa ikusiko duzu. Beste etxetik bazatoz, sar beldurrik gabe, aurrerantzen bi familia izango baituzu.

Ene etxea auzoko bazter batean aurkituko duzu, bi etxetzarren itzalean. Atearen gainan, trikuharrietako harri zaharrean zizelkatuta, eraikitzaileek eman zioten izena ikusiko duzu: EUSKARA.

LAS MADRES: MANANTIAL DE LA VIDA

Vicente Pedrazo
Maestre

Para enriquecer la tierra
Dios eligió a la mujer
entregándole el poder
que con su sangre nos diera
forma y vida a nuestro ser.

El mundo es un gran hogar
las madres sois la puerta
permanecéis abierta
pasando así a disfrutar
lo que la vida nos oferta.

Cuando somos elegidos
comienza la gestación
indefenso el embrión
nos sentimos protegidos
con vuestra respiración.

Con la mayor dedicación
siempre colaborando
por nuestra salud velando
los hijos somos la razón
pasáis la vida luchando.

Encargadas de la higiene
vestidos y nutrición
enseñanza, formación
y todo aquello que tiene
con los hijos relación.

Primero por ser pequeños
nos tratáis con mil amores
ya cuando somos mayores
os despejamos los sueños
las noches de alternadores.

Cuántas veces no apreciamos
vuestros valores de madre
todo lo que dais de valde
fácilmente lo olvidamos
es triste y lamentable.

Pero éstos son los menos
los demás dan alegría
el vivir con armonía
para todos es tan bueno
como el pán de cada día.

A ti madre, que has vivido
en tus carnes el dolor
por el hijo de tu amor
calladamente se ha ido
en lo mejor de su esplendor.

Cuántos recuerdos presentes
con ilusiones frustradas
cuántas lágrimas derramadas
te preguntas y no entiendes
¡Dios mío!, ¿tú donde estabas?

Vuestro cariño materno
limpio de toda maldad
orgullo y fidelidad
es tan fuerte y tan tierno
transparente y de verdad.

Fuente de sabios consejos
sois vosotras las mayores
abanico de colores
os miramos como espejos
donde corregir los errores.

Sois la estrella que nos guía
la noche que nos envuelve
esa luna que nos duerme
y ese sol que cada día
en el cielo resplandece.

Gracias por apoyarnos
por la moral compartida
por ese amor sin medida
gracias por no abortarnos
por respetarnos la vida.

J. M. Iturrioz, 12 - Tel. 88 40 63 20200 BEASAIN

Xabier Gartzia

JUAN DORRONSORO: BASERRIAK BIZIARAZITAKO ALBAITARIA

Juan Dorronsoro ejerció la profesión de veterinario en nuestro pueblo durante cuarenta largos años. En este artículo nos habla de ciertos avatares -todos sería imposible recogerlos en unos cuantos folios- que le tocaron vivir a lo largo de su vida laboral: la época del racionamiento, los tipos de enfermedades del ganado más frecuentes y la forma en que eran tratadas dichas enfermedades, la importancia del matadero de Beasain, el pasado, presente y futuro del caserio, su actividad intelectual dando conferencias, escribiendo artículos, realizando traducciones al euskera...¡Bien merecía al menos una entrevista quien tanto bien hizo en esta villa!

Ataungo Etxatoin-enea kale-baserrian jaio, baserrian hazi eta hezi (ikasketak mediante herritik kanpo iragan behar izan zituen urteak ezik) eta baserritik, edo baserriari esker, bizi izan da Juan Dorronsoro. Beasaingo albaitaria izana, berrogeitaka urte luzeetan. Zer esan franko eta mamitsua du, bai abereen munduaz eta baita mende honetako gure herriaren historia eta kulturaz ere. Belarritik tiratuta bexala eramango zuen aitak Donostiako Peñaflorida Institutura, batxillerreko ingresoa egin zezan, "hik e zerbait ein beharko dek pa" esanez. Donostiatik Lekaroza batxillerra egitera, eta Lekaroztik, karrera egingo bazuen, Zaragozara. Albaitaritza bukatu orduko Ataunen hasi zen lanean, baina, Errepublika bazetorrela eta ez zetorrela, ganaduak utzi eta armak hartzera derrigortuko zuten. Gerran gorriak eta beltzak nozituko zituen, baina onik atera zen: "Hamaika aldiz esaten diot nik andrei: Ricla eta Utebo aldeko ardok bizie salbatu zigun guri, ardo ederra baita Aragoikoa". Frontetik Ataungo lanera itzuliko zen berriro eta, hor hiruzpalau urte pasatuta gero, Beasaingo albaitari izendatuko zuten, berton zekizkien guztiak, bere bizitza luze eta oparoan, gure herriari eskainiz.

- Lanean noiz hasiko eta razionamenduko garaian hasi zinen zu. Hortaz, mixeriaren berri izango duzu.

Bai. Gauzak zorrotz jarri zituzten Gobernukoek, haragia ere razionatuta baitzegoen orduan. Beasainen zortzi zekor baino gehiago ez geneukan hiltzerik astean. Lazkaon bat eta erdi. Olaberrian bi astetik behin zekor bat. Horrela zen legea, baina, bitartean, badakizu: ganadu batek hanka hautsi zuela, edo beste aitzakiaren bat

jarrita...jendea goserik ezin ba eduki! Tranpa pixka bat egin beharra zegoen. Nik uste dut bekatu handirik ez genuela egin. Nik Olaberrian astero hiltzen nuen zekorra, bi astetik behin hiltzearen partez. Lazkaon eta Beasainen ere postura horretan.

- Albaitari batek zerbait jakitekotan, ganaduen gaixotasunak ezagutu behar ditu. Zeintzu ziren, zure garaian, gaitzik ohizkoenak?

Lanparoia adibidez. Behietan asko izaten zen hori garai batean, orain hainbeste ez baina. Horretan zorrotza zen ordena: lanparoidun behi bat azaltzen baldin bazen, gutxiena baldin bazeuken ere, zulora! Hil egin behar genuen. Gero, pixgorria esaten zitzaiona. Maskuriko gaitza zen. Maskurian pinporta gorri-gorriak ateratzen zitzaizkien, eta pinporta edo zaintxo haietako bat lehertzen baldin bazen, ba, orduan, odol-jarioa hasten zen. Eta horretako ez zen sendagairik. Batek, hori sendatzeko, urkiaren azala zela ona esango zizun; beste batek, mendietako harkaitzeko mihura zela ona, eta halaxe. Baina sendagairik ez zegoen, eta gainera kutsakorra zen. Beste gaitz bat, oso txarra zena, frantsesmina edo gaitzberria esaten zitzaiona zen, hau da perineumonia kutsakorra. Hori sendatu nahian Neosalvarsan sartzen genion ganaduari lepoko zainean. Beste gaitz beldurgarri bat nafarmina edo glosopeda esaten zitzaiona zen. Horrek ahoan eta azkazaletan atakatzen ditu ganaduak. Azkazaletan basastoak ateratzen zitzaizkien, eta lehertu egiten ziren. Ahoan lehertuz gero, erabat haragituta gelditzen zen mingaina. Hura ere kutsakorra zen. Kutsatutako ganadua patsa boteaz hasten zen, eta komeriak!.

- Orduan hemen artalde ugari izaki, ardiekin lan eginda egongo zara. Esaidazu zertxobait horretaz.

Ardiek ume-hila botatzen zituzten asko, abortu asko alegia. Abortu kutsakor hori bruzelosia da, Bang-en bruzelak

sortzen duena. Arriskutsua zen hura gizonarentzat, eta nik neronek uste dut pasatu nuela noiz edo noiz. Behien edo ardien kadenak kentzen arituta gero, niri askotan besoak grano gorri-gorriz geratzen zitzaizkidan, kutsatuta edo...

- Zer dira kadenak?

Kadena fetua eta amaren umetokia lotzen dituen organoa da. Kadenen eginkizuna zera da, amaren odola umeari eramatea. Txekorra edo arkumea jaiotzeko momentuan kadenak kendu behar dira. Nik guanterik kantzi gabe kentzen nituen, guanteekin ikutua galtzen baita. Baina, beso garbiekin sartzeagatik edo, noizbait lehen esandako granoak ateratzen zitzaizkidan.

- Botika berak ematen al zaizkie pertsona eta ganaduari?

Bai. Guk, azkenaldi honetan, pertsonak erabiltzen dituen botika guztiak erabiltzen genituen. Antibiotiko denak: penizilina, estreptomizina...Gerra garaian ez, noski; orduan ez baitzegoen asmatuta penizilina. Dena delà, kilajea hartu behar da kontuan: ganadua zenbat eta kilo gehiago den, orduan eta botika-dosi gehiago sartu behar diozu.

- Herriko mataderiaren bizitza puri-purian zegoen zure garaian. Zertan antzematen zitzaion hori?

Goierriko hartu-emana eta Goierriko bizitza neurtzeko barometrorik onena nik neukala esan ohi dut. Herri bakoitzean zenbat ganadu hiltzen ziren begiratzea besterik ez zegoen. Hirurogeita hamargarren hamarkadan fabrika haundiak hamar-hamabi zekor hiltzen zituen astean; Jose Maria Aristrainen ekonomatoak beste hainbeste; gero, guk berrehun eta berrogeita hamarretik hirurehunera hiltzen genituen mataderian. Kontuan hartu Ataungoek, Idiazabalgoek, Segurakoek eta ingurumaritakoek horra ekartzen zituztela ganaduak. Asko ekartzen zituzten gainera, garai horretan Gobernuak prima bat ematen baitzion zekor handiak hazten zituenari. Berrehun kilotik gorako zekorrak prima zeukan, eta halakoa zeukanari bi edo hiru pezeta gehiago ematen zioten kiloko. Horregatik baserritarrek zekor handiak hazteari eman zioten.

- Hildako ganadu guztiek mataderiko pisutik pasatu beharra zeukaten. Hortaz, ongi pisatuta zegoela eta ez zegoela ongi pisatuta, ez al zenuen izaten baserritarrekin tirabirarik?

Esango dizut: baserritar batzuk oso jatorrak dira, baina badira beste batzuk fidagaîtzak direnak, ñooo...! Batekin gogoratzen naiz oraintxe. Mataderira aurrez kontu eginda etortzen zen baserritar asko: honek honenbeste pisatu behar du, honenbeste erralde. Eta, sobra ere, hark uste zuena ez zuen pisatu zekorrak, eta hasi zen marmarrean: bai, hemen lapurrak galantak, eta ez dakit zer eta badakit zer. Eta esan nion: aizu, hitz horiek zuretzat gorde, zoaz alondegira, zerori pisatu han eta ekarri pisatu duzunaren tikea. Handik puska batera itzuli zen mataderian ere pisatzeko. Kontua da alondegiko pisua eta mataderikoa berdinberdinak izan zirela. Orduan, baserritar hura bere jokaera zuritu nahian hasi zen, baina nik erantzun nion: alde egizak azkar hemendik, zeladoreari deitu eta itzalera joan nahi ez baduk. Besteak lapurtzat hartzen dituenak merezi ere merezi dik-eta horrelako zerbait.

- Lanean hasi zinen garai hartan baserriak osasun ederra zuen. Urteak igaro ahala, ordea, gainbehera etorri da. Zergatik?

Batetik, baserriko mutilak lanera behera jetxi direlako etorri da gainbehera baserria, eta, bestetik, baserrian gelditu diren mutilek andregairik aurkitu ez dutelako. Eta andregairik ez baldin bada, ondorengorik ez baldin bada, baserria bukatzera doa. Gero, industri-kontu hori etorri zen, demonien ziztuan hazi egin zen urte gutxitan, eta horregatik sortu ziren hainbeste laminazio, hainbeste fundizio, eta baserriak hustu. Ni Beasainen hasi nintzen garaian, berrogeita batgarren urtean, ehun eta laurogeita zortzi baserri zeuden ganadua zutenak, eta utzi nuen garaian, laurogeigarren urtean, laurogeita hamarrera ez ziren iristen. Nik izugarrizko pena hartu dut Euskal Herriko baserriak eraman duen beajearekin, Euskal Herriari eusteko oinarririk onena baserria baitzen.

- Larruaren prezioa ere oso behera etorri da. Lehen asko balio zuen larruak, eta orain, berriz...

Argentinatik eta hortik etortzen zen lehenago larrua. Baina merkataritzaren hartueman hori hasi zen arte, hemengoarekin baliatu behar, eta dirua egiten zuten, bueno...! Nik badakit gerratean harakin batek etxea nola berria egin zuen zekorrak tiratzen zuen larruaren diruarekin. Hortik pentsatu zenbat txakur handi aterako zuen larruarekin. Gerra garaikò kontuak izaten dira horiek, noski. Larrua mila gauzetarako erabiltzen zen: oinetakoak egiteko, boltsak egiteko, uhalak egiteko...Zekorrarena erabiltzen zen batipat. Zekorrarena zimela izaten baita, irmoagoa, gogorragoa. Ganadu zaharrarena, berriz, ustelxeagoa izaten da, hausten errazagoa.

- Fidagaitz-fama izanda ere, baserritarrek bazekiten elkarri laguntzen. Ezin ahaztuko ditugu Anaitasunak.

J. QUIROS

Bai. Anaitasunak edo Hermandadeak baserritarrek elkarri laguntzeko sortu ziren, hau da, ganaduren bat galtzen baldin bazen, edo zerbait gertatzen baldin bazitzaion, ba, baserritar guztien artean lagundu egiten zioten kaltetuari, dirua ematen zioten. Han zeuden Ezkia Txikiko Antonio Sarasola buru zuen Anaitasuna; beste Anaitasun bat Juan Kruz Olano, sakristaua, buru zuena zen; gero Ugartemendi eta horko baserriak hartzen zituen Anaitasuna; beste bat Antzizarkoa; beste bat Salbatorekoa; eta abar.

- Elgoibarko Sanbartolometan hitzaldiak egiten zenituen hango baserritarrentzat. Zer moduzko hizlaria zinen?

Diputazioak, Aurrezki Kutxarekin batera, ganadu-lehiaketak antolatzen zituen, Ordizian zela, Azpeitian zela, Elgoibarren edo Oñatin zela, eta ni kajaorrosko sekretarioak, Don Matias Beristainek, ontzat hartu ninduen, eta leku horietara joateko eta joateko esaten zidan, hitzaldiak ematera joateko. Elgoibarrera hogei urtean joan izan naiz beti. Hitzaldi motzak egiten nituen jendea ez aspertzeko, jendeak aldegin ez zezan, zergatik esaera zaharra hau da: sermoi motzak bihotza mugitzen du, eta sermoi luzeak ipurdia.

- Oraingo baserriak buelo handia hartu du nonbait: Europan sartuta eta... Baina, aizu, Europako Elkarte Ekonomikoan sartu gara ala sartuarazi gaituzte?

Sartuarazi egin gintuzten bai. Eta nik uste dut nekazari aldetik kaltekoa izan dela. Europan izugarrizko zelaiak daude eta nekazaritza hemen baino errazago egiten dute. Hemengo baserriak lurrez oso txikiak dira, eta Europan, berriz, lur zabal eta handi asko ikusiko dituzu. Han barrogeieta, hirurogei-eta, laurogei behi ikusten dira larrean, eta hemen ez dago horrelako gauzarik. Beraz, orain orain bezala, kaltekoa izan da. Gero, auskalo! Etorkizunaren berri zail da jakiten eta.

- Gauzak horrela, ba al du irtenbiderik hemengo baserriak?

Gauzak, kanpokoak baino hobeak hemen sortzea, horretan ikusten dut irtenbidea. Haragia, adibidez, kanpotik datorrena baino hobea sortzea hemen. Nekazari-lanean, fruta-gauzetan eta abar, berdin. Egin beharreko beste gauza bat hemengoa galtzen ez uztea da, gaztainarekin gertatu den bezala. Gu gazte ginela, Ataunen, gaztainetan hamar bat moeta izango ziren: lehenengo-lehenengoak Andramari gaztainak izaten ziren; hurrena lazkaoe deitzen zena; beste bat altzolea zen; eta atzenean-atzenean beankea biltzen zen ...Etan orain ... denak galdu dira!

Albaitaritzako erretiroa hartuta, baina, hala ere, bere laurogeita bi urterekin ez dio lanari utzi, berak orain puskila-muskila aritzen dela esaten didan arren. Ezin azalduko ditut hemen bere "puskilla-maskil" guztiak, baina jakin ezazue Maria Estuardoren biografia bat euskaratu berri duela; esku artea dauka Arturo Campion en "Garcia de Almoravid" elaberriko itzulpena; Axularren Gero irakurtzen ari da (zenbatgarren aldiz?); honetaz eta hartaz artikuluak idazten ditu... Gainera, ez dago esan gabe uzterik liburu bat idatzita daukala, "Mendian egun bat aitarekin" titulua duena. Liburu mardul horren nondik norakoak ezagutzea jende askori interesatuko litzaiokeelakoan nago. Baina horretarako argitara eman beharra dago. Ni behintzat argitalpenaren zai nauka.

UBI DECORACION

PINTURA - REVESTIMIENTOS - MOQUETAS, ETC.

AVENIDA NAVARRA, 1 - TELEFONO 88 26 81 - BEASAIN

TRANSITO

Carlos Názara
M. Arruebarrena

Ostiral gaueko ordu txikiak. Beasaingo auzo bateko tabernaerakustoki batean. Tabernako hormetan katetxo batzuk zintzilik, bizirik gabeko zainak bailiran. Bi bezero arteari buruz solasean. Arteari eta bizitzari buruz. Oteiza eta kuba-erdiak nahastuz. Hinduen ortodoxia azken txurruta. Artisten bideari jarraituz jakintsu bilakatu nahiean.



Las paredes enmarcadas por pequeñas cadenas que cuelgan (como tendones sin vida) desnudas, vacías, sin el arte que deberían sustentar y que es el objetivo de su existencia provocan en el ambiente intensas sensaciones de carácter kafkiano en lo físico y oteiziano en lo metafísico.

Tránsito

Las dos de la madrugada de la noche de un viernes. Entramos en un pequeño bar/galería de arte de un barrio de Beasain. La ausencia de parroquianos y las paredes enmarcadas por pequeñas cadenas que cuelgan (como tendones sin vida) desnudas, vacías, sin el arte que deberían sustentar y que es el objetivo de su existencia provocan en el ambiente intensas sensaciones de carácter kafkiano en lo físico y oteiziano en lo metafísico.

Inevitable el comentario de Martín.

- Mira, el vacío de Oteiza.

Y pienso que esas cadenas que cuelgan (como tendones sin vida) desnudas, vacías, conforman una gran exposición porque el contacto físico con lo que nos rodea, lo que sentimos, es sólo una parte de lo que somos; la parte intrascendente que no va a tener más remedio que convertirse en polvo y desaparecer. Esas cadenas, sin embargo, están enmarcando la parte trascendente de la humanidad, su independencia espiritual. Se ha apagado la comunicación. "Es la señal de que la operación constructiva del arte, experimental y culturalmente ha desaparecido". "Me quedaba sin estatua pero estrenando vida". (Oteiza -quousque tandem...-).

Claro está que aquello no era una exposición y las cadenas que colgaban (como tendones sin vida) desnudas, vacías, no estaban enmarcando nada, no cumplían ninguna

ES ESPARRU

SUMINISTROS INDUSTRIALES EN GENERAL

Centro Comercial Sempere
Tel. (943) 881981 - Fax. (943) 881981

20200 BEASAIN
(Guipúzcoa)

labor, no trabajaban sino que descansaban a la espera de una intrascendencia que sujetar.

- Txomin! saca un cortado, Benedictine con hielo y medio cuba de Bacardí.

Seguíamos estando solos en el pequeño bar/galería de arte de un barrio de Beasain y mientras tomábamos la última copa bromeamos sobre un artista que tuvo una exposición en la que expuso nada. El responsable o, mejor dicho, la responsable de la exposición estaba atónita y furiosa contemplando sus paredes totalmente vacías, y quizá no le faltara razón.



Sin embargo aquellas cadenas que colgaban (como tendones sin vida) desnudas, vacías, que sin querer enmarcaban las mismas paredes que las sujetaban estaban trabajando con su inactividad y recordaban uno de los principios de la ortodoxia hindú: "El sabio permanece sereno en su ciudad de nueve puertas, sin deseo de acción ni de ser causa de acción, pero dispuesto a actuar cuando sea necesario". (Bhagavad gita).

No sé porqué, pero cuando salimos de este pequeño bar/galería de arte de un barrio de Beasain, lo hicimos con la conciencia relajada y un irrefrenable deseo de convertirnos en sabios recorriendo el camino del artista.

BENANZIO IRAOLA

Gozotegia

Kale Nagusia, 32 - Telnoa. 88 02 09

BEASAIN

ZURE IRUDIA ALDATZERAKOAN
A LA HORA DE CAMBIAR TU IMAGEN

PELUQUERIA MARRAK
ILEPAINDEGIA

FORU KALEA, 1 - TFNOA: 88 89 34 - BEASAIN

COMENTANDO FRASES CURIOSAS

Enrique Aramburu

Cuando llega esta fecha en la que celebramos las fiestas patronales en honor de San Martín de Loinaz uno se presta a preparar algo que considera pueda ser interesante para los lectores de Beasain Festivo, esta magnífica revista que anualmente edita la Sociedad Beti Bizi con un empeño digno de elogio.

Por ello y después de pensármelo mucho paso a recoger, con mi comentario incluido, muchas frases curiosas aparecidas en la prensa diaria y que tienen su miga aparte de que normalmente se le presta poca atención.

Como aperitivo y dentro de una frase que me llamó mucho la atención tenemos la pronunciada por Andoni Zubizarreta, guardameta de la Selección Nacional y ex guardameta entre otros del At. Bilbao, Barcelona y actualmente en el Valencia, casi nada que diría uno, que tan tranquilo dice: "que nadie piense que el fútbol es un chollo", a lo que uno, tras pensárselo mucho, piensa que efectivamente así será por cuanto tienen que trabajar, haciendo lo que les gusta, durante dos horas diarias para ganar una miseria dada su corta vida deportiva, para la que un trabajador normal de ocho horas diarias necesita prácticamente nacer tres veces como mínimo para no llegar a lo que ganan ellos en diez años, por lo que la comparación es evidente.

También me llamó la atención la pronunciada por Xabier Arzallus en televisión donde tranquilamente pronunció la siguiente frase: "no solo de pan vive el hombre" y uno puede pensar que se refería a que también de política lo puede hacer, particularmente esto últimos años tan presuntamente productivos, sin que tampoco tenga desperdicio lo dicho por Jordi Pujol al referirse a que "los empresarios se llevan los beneficios y yo los bofetadas" que sin duda las recibe con sumo gusto por lo que se aferra al sillón que no debe ser tan malo a pesar de recibir bofetadas, todo lo contrario de Iñaki Anasagasti que se lamenta al decir, "siempre nos ofrecen monederos en lugar de carteras", cosa lógica si pensamos que las monedas se quedan por su peso y los billetes se escapan debido al viento -léase corruptos- y antes llamados vulgarmente y en castellano "ladrones", por lo que las carteras no sirven.

Tampoco tiene desperdicio lo declarado por Fernando Vizcaino Casas en su "cara a cara" con Tomas Garcia Yebra al preguntarle este que diferencia hay entre el Vaquilla y Luis Roldan, siendo su contestación que es sencillamente favorable al Vaquilla al ser éste un delincuente común y el otro un sinvergüenza poco común, así como comentar que Hormaechea fue un magnífico alcalde y un buen presidente de Cantabria, y también un claro ejemplo de las diferencias de criterio, porque por una presunta malversación de dos millones le cae una pena, mientras los que presuntamente malversan miles de millones siguen tomando el sol en la playa, quedándose uno perplejo al pensar que ahora se entera este señor que hay que hacerlo a lo grande si quieres que te quede algo para cuando se tranquilice todo.

Otro detalle, este bochornoso, es el protagonizado por el Sr. Ussia cuando le preguntaron que opinába de Javier Clemente como ser humano y como estratega, a lo que respondió que como humano no lo conozco lo suficiente y como estratega es el fascismo trasladado a un campo de fútbol. ¿Por que fascismo? Por encarnar los símbolos del fascismo: atrincheramiento, cobardía que impide la iniciativa y entierra la imaginación, quedándose el tio tan ancho.

